

**Kulturarako udal-lokalen erabilpenaren arautegia**

1. artikulua.

Kultur jardueretarako Udal aretoak, edozein pertsonak, taldek edo erakundek erabil ditzake, baldin eta aldeztu aurretik eskabidea egiten bada.

2. artikulua.

Pasaiaiko Kultura eta Hezkuntza sailak aretoen erabilera eta gozamenerako ematen duen baimena, aldi baterako izango da.

3. artikulua.

Aretoa eskatzeko eskari-orria bete behar da. Eskari-orri hau Kultura eta Hezkuntza sailean aurkeztuko da, gutxienez, erabiltzeko aurreikusita dagoen eguna baino 15 egun lehenago.

4. artikulua.

Eskaria egiten denean eskatzaileari hainbesteko bat ordaintzeko esaten bazaio, harik eta hainbesteko hori ordaindu dela egiaztatzen duen agiria jaso arte, ez zaio baimenik emango. Egiaztatze hau Kultura eta Hezkuntza sailean aurkeztu behar da.

5. artikulua.

Eskaera egun zehatz baterako edota denboraldi luze baterako egin daiteke. Denboraldi luze hori, behienez ere, irailari bitartekoa izango da, bi hilabeteak barne. Denboraldia luzatu nahi bada, aurreko puntuan azaldu den bezala, eskaera berri egin beharko da.

6. artikulua.

Kultura eta Hezkuntza sailak aretoak erabiltzeko programa eta erabilpen-egutegia ezarriko ditu. Egutegi hau betetzeko irizpideak eskaera-ordenean eta ekintzaren interesean oinarrituko dira.

7. artikulua.

Aretoa erabiltzeko baimena emateko garaian, tokiak eta ordutegiak banatzeko orduan, lehentasuna Udalak antolatzen dituen jarduerak izango dute.

8. artikulua.

Toki hauek ez dituzte elkarte partikularrek bakarrik erabiliko, ahalik eta erabiltzaile gehien izatea nahi baita. Bestalde, areto bat erabiltzen denean ezin da bertan gune pribaturik sortu, ez eta egoitza sozial bezala erabili.

9. artikulua.

Aretoa erabiltzen den denboraldian, erabiltzailearen ardura izango da aretoa egoki erabiltzea.

10. artikulua.

Aretoa erabili ondoren uzten denean, bertakoak ez diren tresna guztiak jaso egin behar dira zegoen bezala utzi ahal izateko. Bestalde, udal aretoetan materialik ezin da gorde, aldeztu aurretik, horretarako eskaerarik egin ez bada.

Aretoa erabiltzen ari den unean Udalak ez ditu bere gain hartuko bertan gerta daitezkeen lapurretak eta kalteak.

#### 11. artikulua.

Aretoa erabili ahal izateko Udalak giltza uzten duenean, giltza honen ardura erabiltzaileak izango du eta ezin izango dio inola ere hirugarren bati utzi.

Behin aretoa erabiltzeko denboraldia pasa ondoren, erabiltzaileak giltza Kultura eta Hezkuntza sailean utzi beharko du, bukatu eta, gehienez ere, hiru egunen buruan.

#### 12. artikulua.

Denboraldi baterako aretoa erabiltzeko baimena izateak eta giltza edukitzeak ez du esan nahi aretoa askatasun osoz erabil daitekeenik. Eskarian azaltzen den egun eta orduetan bakarrik erabil daiteke. Beste edozein egunetan erabili nahi bada, berriro ere eskaera-orria bete behar da.

#### 13. artikulua.

Aretoaren erabilerarako denboraldia eskari-orrian adierazitakoa baino lehenago bukatzen bada, Kultura eta Hezkuntza sailari eskutitz baten bidez jakinaraziko zaio.

#### 14. artikulua.

Aretoa erabiltzen ari den unean, bertan kalterik bada, Udalak zehatz-mehatz aztertuko du eta aginpidedun teknikariak egingo duen aktaren bidez azalduko du nori dagokion konponketa edo ordainketa.

Kalte horren ardura une horretan erabiltzen ari den taldearena baldin bada, taldeak hilabete baten barruan konpondu beharko du.

Hilabete horretan arazoa konpontzen ez badu, Udalak eman dion urteko dirulaguntzatik dagokion zenbatekoa kenduko dio eta horrela izan ezean, beharrezko diren legezko ekintzei ekingo zaie. Era berean, aurrerantzean ez zaio udal aretorik erabiltzeko baimenik emango.

#### 15. artikulua.

Aretoaren erabileran kalte larriak egiten badira eta erabilera egokia ez bada, Udalak baimena bertan behera uzteko ahalmena izango du.

#### 16. artikulua.

Hitzarmenen politikan oinarrituta, pertsona eta taldeen artean lankidetzak akordioak egin daitezke, itaundutako ekintzen gaineko programetan elkarrekiko zerbitzu-prestazioak eginez. Zerbitzu-prestazio hauek ez dute betiko loturarik ematen, ordainetan ematen den lotura baizik.

#### Tokien banaketa

Areto nagusia (Antxoko Kultur etxea, San Pedroko Udal aretoa, Trintxerpeko Alkateordetza).

Areto honen eginkizuna jarraian aipatzen direnetan oinarritzen da:

- Antzerti, musika, dantza-antzezpenetan.
- Bideo, diapositiba, bideo-forum emanaldiak.
- Solosalduak, hitzaldiak, mahainguruak.
- Toki hau behar duen beste edozein ekitaldi.

Beste ekitaldirik ezarririk ez badago, areto hau herriko talderen baten entseietarako edo bestetarako erabil daiteke. Areto hau erabiltzeko baimen-ematea, aldez aurretik aurkeztutako programaren arabera izango da. Era berean, dauden beharrak eta eskaerak kontutan hartuko dira.

Balioanitzdun aretoa (San Pedroko Udal aretoa).

Izenak berak adierazten du areto honek ekitaldi anitzetarako balioa duela. Jarduera askotarako erabil daiteke, betiere eskatzen dituzten jardueren arabera izango da. Toki hau ekitaldiaren beharretara egokituko da. Aretoa gela haundi bezala erabil daiteke, baita bi gela txikitan banatura ere.

Areto honek toki irekia eta zabala du erakusketa, hitzaldi eta bileretarako egokia dena.

Areto hau erabiltzeko baimena, aldez aurretik, aurkeztutako programan oinarrituko da, une horretan dauden beharrak eta eskaerak kontutan harturik. Aldez aurretik jakinaraziko zaie taldeei aretoa nork erabiliko duen.

Bilera gela. (San Pedroko Udal aretoa, Trintxerpeko Alkateordetza).

Gela hauek gizarte eta kultura jarduerak bultzatzeko elkarteek egiten dituzten bilera, mintegi, ikastaro eta lantaldeak antolatzeke egokiak dira.

Erabilera-egutegia egingo da, eskaeren beharretara ahalik eta ondoen egokitu ahal izateko.

## ESKABIDEA / INSTANCIA

Talde eskatzailea

Grupo solicitante

Arduraduna

Responsable

Helbidea

Domicilio

N.A.N. / D.N.I.: Tfnoa / Tfno.:

Azaltzen du / Expone

Eskatzen du kultur erabilpenerako Udal lokala erabiltzea

Solicita utilizar el siguiente local municipal de uso cultural

KULTUR ETXEA : areto polibalentea/sala polivalente

UDAL ARETOA : areto polibalentea/sala polivalente

areto nagusia/ salón de actos

bilera gela 1/ sala de reuniones 1

bilera gela 2/ sala de reuniones 2

Trintxerpeko Allkat: areto polibalentea/sala polivalente

bilera gela

199 ko tik 199 ko ra

del de 199 al de 199

ondoko ordutegian / en el siguiente horario

Pasaia (data/fecha)

Sinadura / Firma

Pasaiaiko Udala. Kultura eta Hezkuntza Saila